

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Madril, Bartzelona eta Berako ekitaldiek Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena ospatzen dute

*Barojari buruzko lehen kongresu nazionala izan da antolatutako lehen ekitaldia, eta jarduera horri Sánchez de Muniáin kontseilariak amaiera eman dio ostiral honetan, Madrilen*

Viernes, 14 de noviembre de 2014

Zenbait ekitaldi antolatu dira egunotan Madril, Bartzelona eta Beran, Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko. Antropologo, historialari eta folklorista espainiar hori haurtzarotik Nafarroari lotuta egon zen (Madril, 1914ko azaroak 13 – Bera, 1995eko abuztuak 18).



Sánchez de Muniáin kontseilaria kongresuari amaiera ematen.

Alde batetik, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinek Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak antolatutako **kongresu nazional** bati amaiera eman dio ostiral honetan, Madrilen. Aste guztian zehar, Julio Caro Barojaren irudia aztertu da kongresu horretan, "Espainiako herrien kultura eta ondarea" lelopean.

Kontseilariak azpimarratu duenez, haren lana "mugarria izan zen" gizakia eta haren ohiturak aztertzeko orduan; horrekin, "Espainian gure historiaz dugun kontzeptua aldatu zuen". Nafarroarekin ere zuen lotura nabarmendu du, eta horregatik jaso zituen merezimendu osoz, Urrezko Domina eta Vianako Printzearen Saria 1995ean.

Gainera, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrásek "[Navarra Intensa](#)" ("Nafarroa Bizia") izeneko **erakusketa ibiltaria** zabalduko du larunbat honetan, Bartzelonan, Julio Caro Barojaren irudia omentzeko. Kataluniako hiri horretako nafarren etxean (Maragall pasealekua) jarriko da erakusgai azaroaren 27a bitarte.

### Lore-eskaintza eta kontzertua Beran

Azkenik, Beran, Barojaren gorpuak atsedean hartzen duen udalerrian, **lore-eskaintza** bat egingo da igandean eta Iruñeko Orfeoia ere **kontzertu-omenaldi** bat emango du.

Ekitaldi horietan Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina eta udalerriko alkate Marisol Taberna izango dira. 12:00etan ekingo zaie

ekitaldiei udal-hilerrian Baroja-familiaren panteoiaren alboan egindako lore-eskaintza batekin. Ekitaldian Berako txistulariak ariko dira eta Iruñeko Orfeoiak ere kontzertua emango du doan, 12:30ean, udalerriko kultur etxean

Gogoratu behar da, ospakizun-ekitaldi horien barnean, Foru Gobernuak ere Barojak Nafarroari buruz egindako ikerketa nagusiak biltzen dituen [antologia](#) bat argitaratu duela; horrekin batera, Nafarroako Museoan 2015eko martxora arte luzatuko den [erakusketa](#) bat ikusi ahal izango da; bilduma horretan dokumentu pertsonalak, familiako objektuak eta Barojak berak berreskuratutako material etnografikoa aurki daitezke.

**Argazki-oina (ezkerretik eskuinera):** Carmen Hidalgo, Fernando Carrión, Juan Luis Sánchez de Muniáin, Carmen Caro, Guadalupe Rubio eta Pío Caro Baroja.